



**Azalpen txostena, Diputatu Nagusiaren Alorraren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa.**

#### **010 Programa - Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritza**

Bere zeregin nagusia da bultzatzea, koordinatzea eta kontrolatzea departamentuko organo eta zerbitzuek garatutako ekintzak, laguntza materiala, juridikoa eta aurrekontuen arloko laguntza ematea diputatu nagusiari, zuzendaritza nagusiei eta zerbitzuei eta departamentuko informazio eta administrazio sistemak hobetzea ekar ditzaketen ekintzak bultzatzea.

Programa honetan, aldaketa nagusia, ezarritako aurrekontuaren doikuntzaz gain, IZFE SAri lizentziak berritzeko egin beharreko enkarguaren zenbatekoa murriztu izanaren ondorioz, Gobernantza Departamentuak bere gain hartu baitu izaera korporatibokotzat jo diren aplikazio informatikoen kudeaketa. Bestalde, doikuntzak egin dira programaren barruan II. kapitulua handitzeko, bertan aurre egin beharreko gastuak handitu izanaren ondorioz.

#### **020 Programa – Identitate korporatiboa eta Harreman Instituzionalak**

Programa honen misioa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren kultura korporatiboa eta nortasuna zaintzea eta bermatzea, eta erakundea herritarrengana, gizarte eragileengana eta gainerako erakundeengana hurbiltzeko harremanak sustatzea.

Programa honen lan ildo nagusiak dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudia berritzea eta herritarren aldetik erakundeari buruzko iritzi eta balorazio ona lortzea; Plan Estrategikoan oinarrituta, komunikazio plan bat lantzea eta martxan jartzea, legealdiko proiektu estrategikoak eta lehentasunak aintzat hartuko dituen; eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta gainerako erakundeen arteko harremanak indartzea.

#### **100 Programa - Diputatu Nagusiaren Kabinetea.**

Bere misioa da Foru Aldundiaren gobernuaren ekintza-arau orokorrak finkatzea, foru

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Área de la Diputada General respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

#### **Programa 010 - Secretaría del Área de la Diputada General**

Su principal cometido es impulsar, coordinar y controlar las actividades desarrolladas por los distintos órganos y servicios del departamento, prestar el apoyo material, jurídico y presupuestario que requieran tanto la diputada general como las direcciones generales y los servicios, así como impulsar cuantas actividades conlleven una mejora de los sistemas administrativos y de información del departamento.

En este programa la principal variación, además del ajuste presupuestario establecido, es debida a una reducción del importe del encargo a realizar a IZFE SA para la renovación de licencias al haber asumido el Departamento de Gobernanza la gestión de las aplicaciones informáticas que se han considerado de carácter corporativo. Por otra parte, se han realizado ajustes dentro del programa para incrementar el capítulo II debidos al aumento de los gastos que se abordan en el mismo.

#### **Programa 020 – Identidad Corporativa y Relaciones Institucionales**

Este programa tiene como misión preservar y garantizar la cultura corporativa y la identidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como fomentar las relaciones para acercar la institución a la ciudadanía, a los agentes sociales y al resto de entidades.

Las principales líneas de actuación de este programa son renovar la imagen de la Diputación Foral de Gipuzkoa y lograr una buena opinión y valoración de la institución por parte de la ciudadanía; elaborar y poner en marcha un plan de comunicación basado en el plan estratégico, y que recogerá los proyectos estratégicos y las prioridades de la legislatura; y fortalecer las relaciones entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el resto de entidades.

#### **Programa 100 - Gabinete de la Diputada General.**

Tiene como misión establecer las directrices generales de la acción de gobierno de la



diptatuen jokabidea zuzenduz eta koordinatuz eta jardueren oinarritzko estrategia ezartzea. Gainera, Eusko Ikaskuntzari eta Eskola Txikien festaren antolatzaileei emango zaizkien dirulaguntzak jasotzen ditu programa honek.

Programa honek zuzkiduraren zenbatekoa handitu du, batez ere II. kapitulari dagokionez, udalekiko eta beste erakunde batzuekiko harremanekin lotutako jarduketa berrien kudeaketari aurre egiteko. Bestalde, gastu aurreikuspen bat jaso da VI. kapitularian, Andia kaleko lokala egokitzeko obrei ekiteko.

## 200 Programa – Estrategia

Programa honi dagokio diptatu nagusiar zuzeneko laguntza eskaintzea epe ertaineko ikuspegi estrategiko bat emanez, planifikazio estrategikoa sustatuz, eta, aldi berean, gobernantza ireki eta lankidetzazkoa sendotzea, Etorkezuna Eraikiz ekimenaren bitartez. Hori guztia politika publikoak modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko helburuarekin.

2025. urteko aurrekontuan protagonismo berezia mantentzen du Etorkezuna Eraikiz ekimenak, etorkizuneko erronkek eskatzen dituzten erantzunak lortzeko gobernuaren ekintza gidatu nahi duen elementu nagusia denak. Nolanahi ere, programak ezarritako aurrekontuaren doikuntza jasotzen du, eragin handiagoa duelarik II. kapitularian.

Horretarako, beste ekintza batzuen artean, Etorkezuna Eraikiz – Gipuzkoa Taldean laguntza lerroarekin jarraitzen da, lurraldearentzat proiektu berritzaileak sortzeko. Etorkezuna Eraikiz – Misioak eta mugaz gaindiko aurrekontu parte-hartzaileak dirulaguntza lerroen deialdi berriak ere aurreikusten dira.

Era berean, ekintza publikoaren erronken inguruko ezagutza sendotzeko helburuarekin, hitzarmenak sinatzen dira Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Tecnun Nafarroako Unibertsitatearekin. Hausnarketa akademikoa lerrokatu nahi da lurraldearen erronkei eta lehenasunei begira.

Programa honek bere gain hartzen eta bultzatzen ditu Nazioarteko Harremanen ekintzak, GFAREN jarduera nazioarteko sareekin

Diputación Foral, dirigiendo y coordinando la actuación de los diptados y las diptadas, y liderar la implementación de la estrategia básica de actuación. Además, este programa contempla las ayudas a Eusko Ikaskuntza y al organizador de la fiesta de las “Eskola Txikiak”.

Este programa incrementa el importe de su dotación, básicamente en lo referente al capítulo II, para hacer frente a la gestión de nuevas actuaciones relacionadas con las relaciones con ayuntamientos y otras instituciones. Por otra parte, se ha contemplado una previsión de gasto en el capítulo VI para abordar las obras de acondicionamiento del local de la calle Andia.

## Programa 200 – Estrategia

Corresponde a este programa ofrecer apoyo directo a la diptada general aportando una visión estratégica a medio plazo, promoviendo la planificación estratégica, al mismo tiempo que se impulsa un modelo de gobernanza abierto y colaborativo a través de Etorkezuna Eraikiz. Todo ello con el objetivo de gestionar de manera eficaz y eficiente las políticas públicas.

En el presupuesto para 2025 la iniciativa Etorkezuna Eraikiz, como elemento central que quiere guiar la acción de gobierno hacia las respuestas que los retos de futuro exigen, mantiene un protagonismo específico. En todo caso, el programa contempla el ajuste presupuestario establecido, con una mayor incidencia en el capítulo II.

Entre otras actuaciones, prevé continuar con la línea de ayudas Etorkezuna Eraikiz – Gipuzkoa Taldean que tiene por objetivo la generación de proyectos innovadores para el territorio. Se contemplan también las nuevas convocatorias de las líneas de subvenciones Etorkezuna Eraikiz – Misioak y presupuestos transfronterizos participativos.

Así mismo, con el objetivo de fortalecer el conocimiento en torno a los retos de la acción pública, se contemplan los convenios con la Universidad del País Vasco, Universidad de Deusto, Mondragon Unibertsitatea y Tecnun Universidad de Navarra. Se pretende alinear la reflexión académica hacia los retos y prioridades del territorio.

Desde este programa se asumen e impulsan las acciones de Relaciones Internacionales, conectando la actividad de la DFG con redes



lotuz eta Lurralde Historikoaren presentzia nazioartean bermatuz.

Bestalde, apustu sendoa egin da kultura demokratiko berria sustatzeko, hori baita legealdi honetarako foru gobernuak duen lehentasunetako bat.

Era berean, Etorkezuna Eraikiz programatik kudeatzen diren dirulaguntza izendun batzuk nabarmendu behar dira, ekimen horrekin duten lotura dela eta. Laguntza horien artean daude, besteak beste, entitate hauen alde aurreikusitakoak: Euskal Herriko Unibertsitatea, Barandiaran katedra finantzatzeko, Oreki Fundazioa, Gizabidea Fundazioa edo Jakin Fundazioa. Azkenik, aipatu behar da Badalab Hizkuntza Berrikuntzarako Partzuergoari egin beharreko ekarpena.

### **300 Programa – Komunikazioa**

Programa honen helburua da Aldundia herritarrengana hurbiltzea, haien pertzepzioa hobetuz eta eguneratuz, eta barne komunikazioa eta Batzar Nagusiekikoa sendotzea, gardentasunean aurrera pausuak emanez eta langileen inplikazioa areagotuz. Berariaz, duen garrantzia ekonomikoagatik, programa honetan aipatzekoa da komunikaziorako guneen plangintza eta erosketarako zuzkidura; xede horretarako, lizitazio berri bat dago abian une hauetan.

Programa honetan igoera txiki bat gertatu da bertan aurreko aurrekontuan Identitate Digitalaren programan sartu ziren kredituak sartu direlako.

### **400 Programa – Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa**

Giza eskubideak oinarritzat hartuta, programa honen helburu nagusia da gipuzkoarren elkarbizitza hobetzea: horretarako, hainbat esparrutan ariko da lanean eragile desberdinekin, bakearen eta giza eskubideen kultura sendotzen lagunduz, gure lurraldean dagoen aniztasuna sustatuz eta diskriminazio eza funtsezko euskarritzat hartuz, eta eragile politiko eta sozialen artean kultura demokratikoa bultzatuz.

Zuzendaritzak lehenesten dituen jarduera esparruak dira tokiko politikak, eta gizarteko eragileekin eta gainerako erakundeekin elkarlana, giza eskubideak eta giza duintasuna

internacionales y garantizando la presencia del Territorio Histórico a nivel internacional.

Por otra parte, se realiza una fuerte apuesta para promover la nueva cultura democrática, una de las prioridades del Gobierno Foral para esta legislatura.

Cabe destacar asimismo varias subvenciones nominativas que se gestionan desde el programa Etorkezuna Eraikiz, dada la vinculación que tienen con esta iniciativa. Entre estas ayudas se encuentran, entre otras, las previstas en favor de la Universidad del País Vasco, para la financiación de la cátedra Barandiaran, Fundación Oreki, Fundación Gizabidea o Jakin Fundazioa. Finalmente, debe señalarse la aportación a realizar al Consorcio de Innovación Lingüística Badalab.

### **Programa 300 – Comunicación**

El objetivo de este programa es acercar la Diputación a la ciudadanía, actualizando y mejorando su percepción, y reforzar la comunicación interna y con las Juntas Generales, dando pasos hacia la transparencia e incrementando la implicación de los y las trabajadores/as. En especial, por su relevancia económica, este programa comprende la dotación presupuestaria para la planificación y compra de espacios de comunicación, estando en tramitación para ello una nueva licitación.

En este programa se produce un ligero incremento debido a que se han incluido en el mismo créditos que en el presupuesto anterior formaban parte del programa de Identidad Digital.

### **Programa 400 – Derechos Humanos y Cultura Democrática**

Tomando como base los derechos humanos, el objetivo principal de este programa es mejorar la convivencia de la ciudadanía guipuzcoana: para ello, se trabajará en diferentes ámbitos con diferentes agentes, contribuyendo a consolidar la cultura de la paz y de los derechos humanos, fomentando la diversidad existente en nuestro territorio y tomando como soporte fundamental la no discriminación, e impulsando la cultura democrática entre los agentes políticos y sociales.

Los ámbitos de actuación que prioriza la Dirección son las políticas locales y el trabajo conjunto con agentes sociales y las restantes instituciones, basado en los derechos humanos



oinarri direlarik. Zentzu horretan, sendotuta daude *Bizikidetza Lantzen* programa eta udal eremuan bizikidetza sustatzeko programa. Nolanahi ere, programak ezarritako aurrekontuaren doikuntza jasotzen du, eragin handiagoa duelarik IV. kapituluan.

Programa honetako dirulaguntzen lerroak eta dirulaguntza izendunak mantendu egiten dira; besteak beste, Baketik Fundazioari edo Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteari ematen zaizkienak.

### **500 Programa – Hizkuntza Berdintasuna.**

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2025ko aurrekontuaren helburu nagusia da lehenespenez euskara erabiltzea bultzatzea, bai Aldundiaren barruan, baita lurraldeko gizarte eragileekin ere, hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko.

Hiru jarduketa ildo markatu dira helburu hori lortzeko:

- Aldundian euskara ohiko zerbitzu hizkuntza, laneko hizkuntza eta komunikazio hizkuntza izatera iritsi ahal izateko martxan dauden programak indartu eta hobetzea.

- Udalekin, hizkuntza sektorearekin eta Gipuzkoako eragile nagusiekin elkarlanean jardutea, politikak lerrokatzeko eta pertsonen hizkuntza aukerak berdintzera bideratutako proiektuak partekatzeko.

- Berrikuntzarako jarritako baliabideak indartzea, hainbat ikerketa lerro abiarazteko.

Adierazi behar da II. kapituluan aurrekontua murriztu egin dela, itzulpen zerbitzuen kontratuari dagokienez, gastu aurreikuspenak murrizten baitira.

Dirulaguntzen atalean, ohiko dirulaguntza izendunekin batera, euskararen erabilera soziala sustatzeko lerroen urteroko deialdia jasotzen da, bai eta euskarazko hedabideak sustatzeko emandako dirulaguntzei dagokien deialdi berria ere, Eusko Jaurlaritzak kofinantzatuta.

y la dignidad humana. En este sentido, se dan por consolidados los programas *Bizikidetza Lantzen* y de fomento de la convivencia en el ámbito municipal. En todo caso, el programa contempla el ajuste presupuestario establecido, con una mayor incidencia en el capítulo IV.

Se mantienen las líneas de subvenciones y las subvenciones nominativas de este programa, entre otras, las que se conceden a Baketik Fundazioa o a la asociación SOS Racismo de Gipuzkoa.

### **Programa 500 – Igualdad Lingüística.**

El presupuesto de la Dirección General de Igualdad Lingüística para 2025 tiene como objetivo central impulsar el uso por defecto del euskera, tanto en la Diputación como con el resto de agentes del territorio, a fin de fomentar la igualdad entre hablantes.

Se han marcado tres líneas de actuación para conseguir dicho objetivo:

- Fortalecimiento y mejora de los programas en curso para lograr el uso habitual del euskera como lengua de servicio, de trabajo y de comunicación por parte de la Diputación.

- Trabajo colaborativo con los ayuntamientos, el sector lingüístico y los principales agentes de Gipuzkoa para alinear políticas y compartir proyectos orientados a igualar las opciones lingüísticas de las personas.

- Refuerzo de los recursos destinados a innovación, para iniciar diversas líneas de investigación.

Debe señalarse que en el capítulo II se produce una reducción del presupuesto ya que se minoran las previsiones de gasto en relación con el contrato de los servicios de traducción.

En el apartado de subvenciones, junto a las habituales subvenciones nominativas, se contempla la convocatoria anual de las líneas destinadas a la promoción del uso social del euskera, así como realizar una nueva convocatoria de las subvenciones concedidas para la promoción de los medios de comunicación en euskera, cofinanciada por el Gobierno Vasco.



## 600 Programa – Berdintasuna

Berdintasuneko programaren misioa da bizitzako eremu guztietan emakume eta gizonen artean tratua eta aukera berdintasuna lortzea. Alde batetik, foru politika guztietan genero ikuspegia txertatzen lagunduz, eta bestetik, lurralde mailan, tokiko berdintasunerako politikak sustatuz, talde feminista eta emakume taldeen lana indartuz eta gizartearen berdintasunaren aldeko sensibilizazioa eta giza aldaketa eraginez.

Udal mailan berdintasuneko politikak sustatzeko aholkularitza teknika eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren ebaluazioa egiteko lanak egiten jarraitzen da.

Mantendu egiten dira berdintasun ekintzak garatzeko dirulaguntzen deialdietara bideratutako kontu sailak, bai eta banakako dirulaguntzak ere, bai elkarteei zuzendutakoak, Alarde Publikoaren Alde Alardezaleak edo Bidez Bide elkarten kasuan, bai erakundeen arteko lankidetzak jarduketetarako ezarritakoak, hala nola Emakunderekin Beldur Barik programa garatzeko hitzarmena edo EHUrekin Berdintasun Masterra garatzeko hitzarmena. Horrek guztiak IV. kapitulua handitzea dakar eta, horretarako, beharrezko egokitzapenak egin behar izan dira II. kapituluan.

## Programa 600 – Igualdad

El programa de Igualdad tiene como misión la obtención de la igualdad de trato y de oportunidades entre las mujeres y los hombres en todos los ámbitos de la vida. Por un lado, ayudando a insertar la perspectiva de género en todas las políticas forales y, por otro, fomentando las políticas locales para la igualdad en el ámbito territorial, fortaleciendo el trabajo de los grupos feministas y de mujeres, e impulsando en la sociedad la sensibilización y el cambio social a favor de la igualdad.

Se contemplan los trabajos para la asistencia técnica a la promoción de las políticas de igualdad locales y la evaluación de la Norma Foral 2/2015 para la igualdad de mujeres y hombres.


Se mantienen las partidas destinadas a las convocatorias de subvenciones para desarrollar acciones de igualdad, así como las subvenciones individualizadas, tanto las destinadas a asociaciones, como Alarde Publikoaren Alde Alardezaleak o la Asociación Bidez Bide, como aquellas establecidas para actuaciones de colaboración institucional, como el convenio con Emakunde para el desarrollo del programa Beldur Barik, el convenio con la UPV para el desarrollo del Master de Igualdad. Todo ello supone un incremento en el capítulo IV efectuado a costa de contemplar en el capítulo II los ajustes necesarios.



01 Departamentua DIPUTATU NAGUSIA/  
Departamento 01 DIPUTADA GENERAL

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak   | LANGILEAREN<br>GASTUAK<br>1 | ONDASUN ETA<br>SERB.OHIKO<br>2 | FINANTZA<br>GASTUAK<br>3 | TRANSFER.<br>ARRUNTAK<br>4 | KONTINGENT.<br>EZUSTEKOAK<br>5 | INBERTSIO<br>ERREALAK<br>6 | KAPITAL<br>TRANSFER.<br>7 | FINANTZA<br>AKTIBOAK<br>8 | FINANTZA<br>PASIBOAK<br>9 | AURREKONTUA<br>GUZTIRA |
|---|-----------------------------|--------------------------------|--------------------------|----------------------------|--------------------------------|----------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|------------------------|
| Programas   | GASTOS DE<br>PERSONAL       | GTOS.CTES.<br>BIEN.Y SERV      | GASTOS<br>FINANCIEROS    | TRANSFER.<br>CORRIENTES    | CONTINGENC.<br>IMPREVISTOS     | INVERSIONES<br>REALES      | TRANSFER.<br>DE CAPITAL   | ACTIVOS<br>FINANCIEROS    | PASIVOS<br>FINANCIEROS    | TOTAL<br>PRESUPUESTO   |
| 01. Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkaritza/<br>Secretaría del Área de la Diputada General                   | 743,15                      | 189,47                         |                          |                            |                                | 194,91                     |                           |                           |                           | 1.127,52               |
| 02. Identitate Korporatiboa eta Harreman Instituzionala<br>Identidad Corporativa y Relaciones Institucionales | 95,33                       |                                |                          |                            |                                |                            |                           |                           |                           | 95,33                  |
| 10. Diputatu Nagusiaren Kabinetea/<br>Gabinete de la Diputada General   | 1.723,77                    | 564,60                         |                          | 523,00                     |                                |                            |                           |                           |                           | 2.811,37               |
| 20. Estrategia/<br>Estrategia   | 646,26                      | 2.522,15                       |                          | 5.194,98                   |                                | 210,00                     | 36,30                     |                           |                           | 8.609,69               |
| 30. Komunikazioa/<br>Comunicación   | 174,31                      | 1.952,66                       |                          | 4,24                       |                                |                            |                           |                           |                           | 2.131,21               |
| 40. Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa/<br>Derechos Humanos y Cultura Democrática                       | 173,95                      | 392,89                         |                          | 845,50                     |                                |                            |                           |                           |                           | 1.412,34               |
| 50. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia/<br>Igualdad Lingüística                                    | 1.393,15                    | 756,23                         |                          | 5.719,54                   |                                |                            | 401,34                    |                           |                           | 8.270,25               |
| 60. Berdintasuna/<br>Igualdad   | 561,18                      | 934,18                         |                          | 793,50                     |                                |                            |                           |                           |                           | 2.288,86               |
| <b>Departamentua Guztira<br/>Total Departamento</b>   | <b>5.511,10</b>             | <b>7.312,17</b>                |                          | <b>13.080,75</b>           |                                | <b>404,91</b>              | <b>437,64</b>             |                           |                           | <b>26.746,56</b>       |



- 1. LANGILEAREN GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL
- 2. ONDASUN ETA SERB.OHIKO/GTOS.CTES. BIEN.Y SERV
- 4. TRANSFER. ARRUNTAK/TRANSFER. CORRIENTES
- 6. INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES
- 7. KAPITAL TRANSFER./TRANSFER. DE CAPITAL